AURKIBIDEA / ÍNDICE

MEMORIA / MEMORIA

1. Antolakuntza eta jarduera/
Organización y actividad 3

2. Kontuak aurkezteko oinarriak/
Bases de presentación de las cuentas 16

3. Aintzatespen eta balioespen arauak/
Normas de reconocimiento y valoración 17

4. Ibilgetu materiala / Inmovilizado material 23

5. Ondasun higiezinetako inbertsioak/
Inversiones inmobiliarias 31

6. Ibilgetu ukiezinak/
Inmovilizado intangible 33

7. Errentamendu finantzarioak eta antzeko eragiketak/
Arrendamientos financieros y otras operaciones de naturaleza similar 36

8. Aktibo Finantzarioak/
Activos financieros 37

9. Pasibo finantziarioak/
Pasivos financieros 51

10. Kontabilitate-estaldurak/
Coberturas contables 57

11. Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboak eta beste izakin batzuk/
Activos construidos o adquiridos para otras entidades y otras existencias 58

12. Atzerri-moneta/
Moneda extranjera 59

13. Transferentziak, diru laguntzak eta beste gastu eta sarrera batzuk/
Transferencias, subvenciones y otros ingresos y gastos 60

14. Hornidurak eta kontingentziak/
Provisiones y contingencias 69

15. Ingurumenari buruzko informazioa/
Información sobre medio ambiente 71

16. Salgai dauden aktiboak/
Activos en estado de venta 73

17. Eragiketak beste ente publiko batzuen kontura bildutako baliabideen kudeaketagatik/
Operaciones por administración de recursos por cuenta de otros entes públicos 74

18. Aurrekontuz kanpoko eragiketak/
Operaciones no presupuestarias 76

19. Gordailuan jasotako baloreak/
Valores recibidos en depósito 79

AURKIBIDEA / ÍNDICE

20. Aurrekontu informazioa / Información presupuestaria 80

20.1. Indarrean dagoen aurrekontua / Presupuesto corriente 80

20.2. Itxitako aurrekontuak / Presupuestos cerrados 149

20.3. Aurrekontuaren emaitza / Resultado presupuestario 162

20.4. Geroko ekitaldietako aurrekontuen kontura egiteko gastu konpromisoak / Compromisos de gasto con cargo a presupuestos de ejercicios posteriores 164

20.5. Finantzaketa lotuko gastuak / Gastos con financiación afectada 191

20.6. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria/ Estado del Remanente de Tesorería 193

21. Zerga Itunduei buruzko informazioa/ Información de los Tributos Concertados 194

21.1. Araudiaren aldaketak / Modificaciones normativas 194

21.2. Uneko ekitaldia / Ejercicio corriente 209

21.3. Ekitaldi itxiak (Gerakinak) / Ejercicios cerrados (Resultas) 215

21.4. Bilketa guztira, uneko ekitaldia eta gerakinak/ Recaudación total, ejercicio corriente y resultas 217

21.5. Gerorapenak / Aplazamientos 227

21.6. Kobratzeko dauden eskubideak, guztira/ Total derechos pendientes de cobro 227

21.7. Kredituen balio narridura / Deterioro del valor de los créditos 229

22. Finantza, ondare eta aurrekontu arloko adierazleak/ Indicadores financieros, patrimoniales y presupuestarios 230

23. Itxieraren ondorengo gertaerak/ Hechos posteriores al cierre 240

24. Batez besteko ordainketa epea / Plazo medio de pago 242

25. Zor Publikoaren Txostena / Memoria de la Deuda Pública 246

1. ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA

1.1. ENTITATEA SORTZEN EDO ERREGULATZEN DUEN ARAUA

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 2005eko uztailaren 20ko 137 zenbakian argitaratuak, lege esparrua ezartzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernua eta Administrazioa arautzeko.

Zehazki, atariko tituluan honako hau dio 1. artikuluak:

"Usadio historikoari jarraituz, Batzar Nagusiak eta Foru Aldundia dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Erakunde eta Organoak."

Orobat, martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak, ezartzen du Foru Administrazioak (Foru Aldundiarekin identifikatuak), Administrazio Instituzionalak, merkataritzako foru sozietate eta foru fundazioek osatzen dutela Gipuzkoako lurralde historikoko foru sektore publikoa.

Gipuzkoako Foru Aldundia foru sektore publikoan lurralde izaera duen entitate bakarra da. Gipuzkoako Foru Ogasunaren berezko gaiei dagokienez, berariaz aplikagarri zaizkion xedapenen arabera arautuko da Aldundia, eta, haiekin kontraesanean ez badaude, baita Gipuzkoako lurralde historikoko foru sektore publikoan zuzenbide publikokoak diren entitateei aplikatu beharreko gainerako arauen arabera ere.

1.2. ENTITATEAREN JARDUERA NAGUSIA, BERE ARAUBIDE JURIDIKOA, EKONOMIKO-FINANTZARIOA ETA KONTRATAZIOKOA

Bere jarduera egitean, Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatu behar ditu 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoak, I. tituluan ezarritako eskumenak.

Bere jarduerak bi egiteko nagusi ditu, alegia Estatuarekin itundutako zergak kudeatzea eta eskumen osoko nahiz beste erakunde batzuekin banatutako zenbait zerbitzu ematea, besteak beste: errepide sarea, sustapen ekonomikoa, gizarte ongizatea, nekazaritza, kultura eta udal

1. ORGANIZACIÓN Y ACTIVIDAD

1.1. NORMA DE CREACIÓN / REGULACIÓN DE LA ENTIDAD

La Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 137 de 20 de julio de 2005 establece el marco legal mediante el que se regula la Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En concreto, el artículo 1 de su Título Preliminar establece que:

"De acuerdo con su tradición histórica son Instituciones y Órganos Forales del Territorio Histórico de Gipuzkoa las Juntas Generales y la Diputación Foral."

A su vez, la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece que el sector público foral del territorio histórico de Gipuzkoa se halla integrado por la Administración Foral, que se identifica con la Diputación Foral, por la Administración Institucional, por las sociedades mercantiles forales y las fundaciones forales.

La Diputación Foral de Gipuzkoa es la única entidad del sector público foral de carácter territorial y se rige, en cuanto a las materias propias de la Hacienda Foral de Gipuzkoa, por las disposiciones referentes a la misma que le sean de expresa aplicación y, en lo que no las contradigan, por las demás normas aplicables a las entidades del sector público foral del territorio histórico de Gipuzkoa que se rijan por el derecho público.

1.2. ACTIVIDAD PRINCIPAL DE LA ENTIDAD, SU RÉGIMEN JURÍDICO, ECONÓMICO-FINANCIERO Y DE CONTRATACIÓN

La actividad de la Diputación Foral de Gipuzkoa consiste en el desempeño de las competencias que se detallan en el Título 1º de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

Sus actividades se centran fundamentalmente en la gestión de los tributos concertados con el Estado y en la prestación de determinados servicios de competencia exclusiva o compartida con otras instituciones, entre otras, red de carreteras, promoción económica, bienestar social,

sektorearen ikuskapena eta laguntza.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren araubide ekonomiko eta finantzarioari dagokionez, aipatzekoa da 2007ko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Araua erreferentziako agiri juridikoa dela. Haren xedea da Gipuzkoako lurralde historikoko foru sektore publikoaren aurrekontuak, ekonomia-finantzak, kontabilitatea eta kontrola arautzea.

Foru arau horretan zerrendatuta eta definituta daude kontabilitate printzipio publikoak eta, zehazkiago, honako hauen gaineko benetako irudia ematea ezarri da foru sektore publikoko kontabilitatearen helburu gisa: ondarearen, finantzen egoeraren eta foru sektoreko entitate bakoitzaren aurrekontuaren emaitzen eta betearazpenaren gaineko benetako irudia ematea.

Era berean, aipatzekoa da 2012ko abenduaren 28ko 51/2012 Foru Dekretuaren bidez Gipuzkoako Kontabilitate Publikoko Plan Orokor bat onartu zela.

Era berean, 2019ko aurrekontuaren exekuzioa Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 21eko 7/2018 Foru Arauak xedatutakoaren arabera gauzatu da.

Kontu hauek kontabilitateko eregistroen arabera prestatu dira, eta Gipuzkoako Kontabilitate Publikoko Planean jasota dauden kontabilitate printzipioei eta balorazio eta sailkapen arauei jarraituz egin dira.

Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzio araubideari buruzko lege esparrua 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legea da, hain zuzen Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen duena, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena. Aurreko legeriarekin batera, garapeneko legeria autonomiko eta forala ere aplikatzen da.

Hona hemen Gipuzkoako Foru Aldundiaren araubide ekonomiko-finantzariori aplikatzen zaion beste arau batzuk:

agricultura, cultura y supervisión y apoyo al sector local.

En lo que se refiere al régimen económico y financiero de la Diputación Foral de Gipuzkoa, cabe reseñar que la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, es el documento jurídico de referencia. Tiene por objeto la regulación del régimen presupuestario, económico-financiero, de contabilidad y de control del sector público foral del territorio histórico de Gipuzkoa.

Esta Norma Foral aporta la enumeración y definición de los principios contables públicos y, en particular, establece como una de las finalidades de la contabilidad del sector público foral, la de mostrar la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera, de los resultados y de la ejecución del presupuesto de cada una de las entidades integrantes del mismo.

Así mismo, conviene destacar que, mediante el Decreto Foral 51/2012, de 28 de diciembre, se aprobó el Plan General de Contabilidad Pública del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

A su vez, la ejecución presupuestaria durante el ejercicio 2019 se ha llevado a cabo conforme a lo previsto en la Norma Foral 7/2018, de 21 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2019.

Estas cuentas han sido confeccionadas a partir de los registros de la contabilidad y preparadas de acuerdo con los principios contables y normas de valoración y clasificación contenidas en el Plan de Contabilidad Pública del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por otro lado, el marco legal que regula el régimen de contratación de la Diputación Foral de Gipuzkoa es la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, el Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, así como la normativa autonómica y foral de desarrollo.

Otras disposiciones que regulan el régimen económico-financiero de la Diputación Foral de Gipuzkoa:

- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra.
- 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzei buruzkoa.
- 24/2008 Foru Dekretua, apirilaren 29koa, Gipuzkoako lurralde historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena.
- 8/1996 Foru Araua, uztailaren 9koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Ondareari buruzkoa.

1.3. SARRERA-ITURRI NAGUSIEN DESKRIBAPENA

Lurralde historikoetako erakundeek beren zerga araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko ahalmena dute, hala jasotzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak.

Gainera, lege horren arabera, lurralde historikoetako zerga sistema osatzen duten zergak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea foru aldundiei dagokie, bakoitzari bereak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren sarrera-iturri nagusiak Ekonomia Itunaren indarrez kudeatzen eta biltzen dituen zerga itunduak dira. Haiez gain, baditu beste sarrera batzuk ere, tasak eta prezio publikoak biltzeagatik lortzen dituenak.

Zerga intunduei dagokienez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta balio erantsiaren gaineko zerga dira Gipuzkoako Foru Aldundiak biltzen dituen zerga nagusiak.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzkoak, 20. artikuluan ezartzen duenez, Ekonomia Itunaren kudeaketatik ondorioztatzen diren sarrerak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eta lurralde historikoetako foru ogasunen artean banatu behar dira.

Bestalde, Gipuzkoako udalak Ekonomia Itunetik datozen sarrerekin finantzatzen dira.

Aurrekotik ondorioztatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak biltzen dituen sarrerak erakunde honen

- Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- Norma Foral 8/1996, de 9 de julio, de Patrimonio del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

1.3. DESCRIPCIÓN DE LAS PRINCIPALES FUENTES DE INGRESOS

En virtud de la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, su régimen tributario.

Esta ley establece, además, que la exacción, gestión, liquidación, inspección, revisión y recaudación de los tributos que integran el sistema tributario de los Territorios Históricos corresponderá a las respectivas Diputaciones Forales.

Las principales fuentes de ingreso de la Diputación Foral de Gipuzkoa son los tributos concertados gestionados y recaudados en virtud del Concierto Económico. Además, percibe otros ingresos que provienen de la recaudación de tasas y precios públicos.

Por lo que se refiere a los tributos concertados, el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el Impuesto sobre Sociedades y el Impuesto sobre el Valor Añadido son los principales impuestos recaudados por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El artículo 20 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos establece que los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico se distribuirán entre la Hacienda General del País Vasco y las Haciendas Forales de los Territorios Históricos.

Así mismo, los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa se financian de los ingresos derivados del Concierto Económico.

De todo lo anterior se deduce que los ingresos que recauda la Diputación Foral de Gipuzkoa se

jarduera, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Gipuzkoako udalak finantzatzeko erabiltzen direla.

Biltzen diren sarrerak aipatu diren erakundeen artean banatzeko, kontuan hartzen da martxoaren 23ko 2/2007 Legea, baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Antonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa. Bere azken xedapena dio beste lege arautzaile bat onartzen ez den artean, legeak indarrean jarraituko duela 2012an eta hurrengoetan.

Ekonomia Itunaren 12/2002 Legeak Estatuaren aldeko Kupoa arautzen du. Kupotzat hartzen da Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren karga guztien ordain moduan Estatuari egiten dion ekarpena. Kupo osoa lurralde historikoetako bakoitzari dagokion kupoaz osatuta dago. Kupoa zerga itunduen sarreren kargura finantzatzen da.

1.4. OINARRIZKO ANTOLAKETAREN EGITURA

2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren bidez, lege esparrua ezarri zen Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde antolaketa, gobernua eta administrazioa arautzeko.

Zehazki, atariko tituluan honako hau dio 1. artikuluak:

"Usadio historikoari jarraituz, Batzar Nagusiak eta Foru Aldundia dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Erakunde eta Organoak."

Era berean, foru arau horrek II. tituluaren kapitulu bakarrean arautzen ditu Foru Aldundiaren izaera, osaera eta bere agintaldiaren amaiera. Izan ere, Aldundia lurralde historikoaren gobernu eta administrazio organoa da; eta erregelamendu ahalmena ematen zaio, Batzar Nagusiek duten arau ahalmenetik bereizia eta desberdina. Horrenbestez, honela dio 15. artikuluan:

"1.- Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren lege ordezkaritza du, haren gobernuaren eta administrazioaren ardura hartzen du, bere eskumenen barruan, eta berari dagozkio zeregin exekutiboak nahiz administratiboak,

destinan a financiar la actividad de esta institución, a la Comunidad Autónoma del País Vasco y a los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Los ingresos recaudados se distribuyen entre las instituciones mencionadas conforme establece la Ley 2/2007, de 23 de marzo, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2007-2011. De la Disposición Final de esta norma se deduce que, al no haberse promulgado una nueva ley reguladora, estará en vigor en los años 2012 y siguientes.

La mencionada Ley 12/2002, del Concierto Económico regula el Cupo al Estado. Esta figura representa la aportación del País Vasco como contribución a todas las cargas del Estado que no asume la Comunidad Autónoma del País Vasco. El cupo global está integrado por los correspondientes a cada uno de sus Territorios Históricos. El cupo se financia con cargo a los ingresos de los tributos concertados.

1.4. ESTRUCTURA ORGANIZATIVA BÁSICA

La Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, establece el marco legal mediante el que se regula la organización institucional, gobierno y administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En concreto, el artículo 1 de su Título Preliminar establece que:

"De acuerdo con su tradición histórica son Instituciones y Órganos Forales del Territorio Histórico de Gipuzkoa las Juntas Generales y la Diputación Foral."

Así mismo, el capítulo único del Título II de la referida Norma Foral, regula el carácter, composición y cese de la Diputación Foral, órgano de gobierno y administración del Territorio Histórico con potestad reglamentaria diferenciada y diferente de la potestad normativa de las Juntas Generales. En este sentido, en su artículo 15 se señala que:

"1.- La Diputación Foral ostenta la representación legal del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en la esfera de sus competencias, asume su gobierno y administración, correspondiéndole las funciones ejecutivas y administrativas, la potestad

erregelamenduak emateko ahalmena eta araugintza ekimena.

2.- Foru Aldundia Diputatu Nagusiak eta gehienez ere hamar foru diputatuk osatzen dute.

3.- Aldundian bi sexuek gutxienez %40ko ordezkaritza izango dute".

Diputatu Nagusia Batzar Nagusiek aukeratzen dute. Behin diputatu nagusia aukeratua izan ondoren, bere diputatuak izendatzen ditu, eta denek Diputatuen Kontseilua osatzen dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak departamentu hauek izan ditu 2019eko ekitaldian ekainaren 30era arte, Diputatu Nagusiaren Arloaz gain:

- Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
- Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioako Departamentua
- Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua
- Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentu
- Ogasun eta Finantza Departamentua
- Bide Azpiegituretako Departamentua
- Gizarte Politikako Departamentua
- Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

Eta uztailaren 1etik aurrera:

- Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua.
- Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua.
- Gobernantza Departamentua.
- Proiektu Estrategikoetako Departamentua.
- Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.
- Ogasun eta Finan tza Departamentua.
- Bide Azpiegituretako Departamentua.
- Gizarte Politiketako Departamentua.
- Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua.

Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentua keta horien eskumenak xedapen hauetan araututa daude:

reglamentaria y la iniciativa normativa.

2.- La Diputación Foral se compone de Diputado o Diputada General y un número de Diputados Forales que no podrá exceder de diez.

3.- En la Diputación Foral ambos sexos estarán representados al menos en un 40%".

El Diputado o Diputada General es elegido por las Juntas Generales. Una vez elegido, nombra sus diputados o diputadas que forman el Consejo de Gobierno Foral.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, además del "Área del Diputado General", ha estado compuesta en el ejercicio 2019 hasta el 30 de junio por los siguientes departamentos:

- Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes
- Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad
- Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial
- Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio
- Departamento de Hacienda y Finanzas
- Departamento de Infraestructuras Viarias
- Departamento de Políticas Sociales
- Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

Y a partir del 1 de julio:

- Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.
- Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes.
- Departamento de Gobernanza.
- Departamento de Proyectos Estratégicos.
- Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio.
- Departamento de Hacienda y Finanzas.
- Departamento de Infraestructuras Viarias.
- Departamento de Políticas Sociales.
- Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas.

Los departamentos que integran la Diputación Foral de Gipuzkoa y las competencias que les corresponden están reguladas en las siguientes disposiciones:

- 3/15 Foru Dekretua, ekainaren 24koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoa.
- 18/15 Foru Dekretua, ekainaren 25ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarrizko departamentu egiturari buruzkoa.
- 3/19 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoa.
- 19/19 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarrizko departamentu egiturari buruzkoa.

1.5. ERAKUNDEAN ARDURADUN NAGUSIAK

2019ko maiatzaren 26an Gipuzkoako Batzar Nagusien hauteskundeak ospatu ziren.

Batzar Nagusiak hauteskundeetatik ateratako konposizioarekin eratu eta gero, 2019ko ekainaren 29an diputatu nagusi berria hautatu zuten, eta jarraian honek departamentuetako diputatu berriak izendatu zituen.

Gauzak horrela 2019 ekitaldian zehar entitatearen arduradun nagusiak hauexek izan dira:

Ekainaren 30era arte:

- **Diputatu nagusia**

  Markel Olano Arrese jauna.

- **Departamentuko diputatuak**

  – Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatu, eta lehen diputatu nagusiorde, Denis Itxaso González jauna.
  – Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatu, Diputatuen Kontseiluko idazkari eta bigarren diputatu nagusiorde, Imanol Lasa Zeberio jauna.
  – Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko foru diputatu, Ainhoa Aizpuru Murua andrea.

  – Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatu, Maria Soledad Garmendia Beloki andrea.

- Decreto Foral 3/2015, de 24 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones.
- Decreto Foral 18/2015, de 25 de junio, sobre estructura departamental básica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Decreto Foral 3/2019, de 29 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones.
- Decreto Foral 19/2019, de 1 de julio, sobre estructura departamental básica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

1.5. PRINCIPALES RESPONSABLES DE LA ENTIDAD

El 26 de mayo de 2019 tuvieron lugar las elecciones a Juntas Generales de Gipuzkoa.

Tras la constitución de las Juntas Generales con la nueva composición resultante de las elecciones, con fecha 29 de junio de 2019 se procedió a la designación del nuevo diputado general y posteriormente se procedió por éste a la designación de las diputadas y diputados titulares de los departamentos.

De dicha forma, los principales responsables de la Entidad en el ejercicio 2019 han sido los siguientes:

Hasta el 30 de junio:

- **Diputado General:**

  D. Markel Olano Arrese

- **Diputados y diputadas departamentales**

  – Diputado foral titular del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes, y primer teniente de diputado general, D. Denis Itxaso González.
  – Diputado foral titular del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, secretario del Consejo de Gobierno Foral y segundo teniente de diputado general, D. Imanol Lasa Zeberio.
  – Diputada foral titular del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial, Dña. Ainhoa Aizpuru Murua.
  – Diputada foral titular del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio, Dña. Maria Soledad Garmendia Beloki.

– Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatu, Jabier Larrañaga Garmendia jauna.
– Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatu, Aintzane Oiarbide Iruretagoiena andrea.
– Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatu, Maite Peña López andrea.
– Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatu, José Ignacio Asensio Bazterra jauna.

Uztailaren 1etik aurrera:

- **Diputatu nagusia**

Markel Olano Arrese jauna

- **Departamentuko Diputatuak**

– Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatu, eta lehen diputatu nagusiorde, Imanol Lasa Zeberio jauna.
– Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatu, eta bigarren diputatu nagusiorde, Denis Itxaso González jauna.
– Gobernantza Departamentuko foru diputatu, eta Diputatuen Kontseiluko idazkari, Eider Mendoza Larrañaga andrea.
– Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatu, Ainhoa Aizpuru Murua andrea.
– Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatu, Rafaela Romero Pozo andrea.
– Ogasun eta Finan tza Departamentuko foru diputatu, Jabier Larrañaga Garmendia jauna.
– Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatu, Aintzane Oiarbide Iruretagoiena andrea.
– Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatu, Maite Peña López andrea
– Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatu, José Ignacio Asensio Bazterra jauna.

1.6. BATEZ BESTEKO LANGILE KOPURUA 2019ko EKITALDIAN ETA ABENDUAREN 31n

Gipuzkoako Foru Aldundiaren plantilla honela sailkatu dezakegu: goi karguak (diputatuak), zuzendariak eta behin-behineko langileak,

– Diputado foral titular del Departamento de Hacienda y Finanzas, D. Jabier Larrañaga Garmendia.
– Diputada foral titular del Departamento de Infraestructuras Viarias, Dña. Aintzane Oiarbide Iruretagoiena.
– Diputada foral titular del Departamento de Políticas Sociales, Dña. Maite Peña López.
– Diputado foral titular del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, D. José Ignacio Asensio Bazterra.

A partir del 1 de julio:

- **Diputado General:**

D. Markel Olano Arrese

- **Diputados departamentales**

– Diputado foral titular del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, y primer teniente de diputado general, D. Imanol Lasa Zeberio.
– Diputado foral titular del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes, y segundo teniente de diputado general, D. Denis Itxaso González.
– Diputada foral titular del Departamento de Gobernanza y secretaria del Consejo de Gobierno Foral, Doña Eider Mendoza Larrañaga.
– Diputada foral titular del Departamento de Proyectos Estratégicos Dña. Ainhoa Aizpuru Murua.
– Diputada foral titular del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio, Dña. Rafaela Romero Pozo.
– Diputado foral titular del Departamento de Hacienda y Finanzas, D. Jabier Larrañaga Garmendia.
– Diputada foral titular del Departamento de Infraestructuras Viarias, Dña. Aintzane Oiarbide Iruretagoiena.
– Diputada foral titular del Departamento de Políticas Sociales, Dña. Maite Peña López.
– Diputado foral titular del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, D. José Ignacio Asensio Bazterra.

1.6. NÚMERO MEDIO DE PERSONAS EMPLEADAS DURANTE EL EJERCICIO 2019 Y A FECHA DE 31 DE DICIEMBRE

La plantilla de la Diputación Foral de Gipuzkoa está compuesta por altos cargos (diputadas y diputados), personal directivo y eventual, personal

funtzionarioak (bitartekoak, praktiketakoak eta karrerakoak), lan kontratudun finkoak eta aldi baterako lan kontratudunak.

funcionario (interino, en prácticas, de carrera), personal laboral fijo y personal laboral temporal.

Jarraian enplegatu kopuru osoaren informazioa ematen dugu 2018 eta 2019ko abenduko Gizarte Segurantzaren kotizazio sozialei buruzko TC1 eta TC2 agirietan ageri diren datuen arabera:

A continuación se presenta una tabla con el número total de personas empleadas según la información proporcionada por los TC1 y TC2 de las cotizaciones sociales a la Seguridad Social correspondientes al mes de diciembre de los años 2018 y 2019:

Bildutako datuak kontratu mota bakoitzeko langile kopurua azaltzen du; hilabete berean kontratu mota aldatuko balitz, bi aldiz agertuko litzateke koadroan zehaztua, hala nola, langilea bitarteko funtzionariotik, praktiketako funtzionariora pasatzen bada.

Los datos recogidos constituyen el número de empleados por tipo de contrato; cuando en un mes el empleado cambia de tipo de contrato aparece dos veces registrado en este cuadro, por ejemplo cuando pasa de funcionario interino a funcionario en prácticas.

Langile kopurua abenduaren 31n / Número de empleados a 31 de diciembre	**2019**	**2018**
Goi karguak / Altos cargos	10	9
Zuzendariak eta behin-behineko langileak / Personal directivo y personal eventual	73	67
Funtzionarioak / Personal funcionario	1796	1780
Lan kontratu finkodunak / Personal laboral fijo	23	42
Aldi baterako lan kontratudunak / Personal laboral eventual	24	24
Guztira / Total	**1926**	**1922**

Urtean zehar aldatu egin da kontratatutako langile kopurua. Horrela: errenta kanpaina hasteak berekin dakar 86 bitarteko funtzionario kontratatzea apiril, maiatz eta ekainean jarduteko; halaber, udako hilabeteetan, Aste Santuan eta Gabonetan langileak kontratatzen dira hainbat egoitzetako zerbitzuak bermatzea helburu duten ordezkapenak egiteko.

El número de personas contratadas varía a lo largo del año, por ejemplo: el inicio de la campaña de la declaración de la renta supone la contratación de 86 personas con carácter interino durante los meses de abril, mayo y junio. Así mismo, durante las vacaciones de verano, la Semana Santa y las Navidades, se realizan nuevas contrataciones para realizar sustituciones que permitan garantizar los servicios que se prestan en diversos centros.

Horregatik, ekitaldiko langileen batez besteko kopurua handixeagoa da abenduko langile kopuru osoa baino.

Por ello, el número medio de personas empleadas del ejercicio es algo superior al número de personas empleadas en diciembre.

Batez besteko langile kopurua / Número medio de empleados	2019	2018
Goi karguak / Altos cargos	9,50	9,00
Zuzendariak eta behin-behineko langileak / Personal directivo y personal eventual	70,50	67,75
Funtzionarioak / Personal funcionario	1.841,17	1.812,92
Lan kontratu finkodunak / Personal laboral fijo	35,67	41,33
Aldi baterako lan kontratudunak / Personal laboral eventual	22,08	21,50
Guztira / Total	**1.978,92**	**1.952,50**

Ondoko grafikoan erakusten da zer bilakaera izan duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren lanpostuen zerrenda osoak 2018an eta 2019an, Gizarte Segurantzaren kotizazio sozialei buruzko TC1 eta TC2 agirien arabera.

En el siguiente gráfico se representa la evolución de la plantilla total de la Diputación Foral de Gipuzkoa durante los años 2018 y 2019, según datos obtenidos de los documentos TC1 y TC2 de cotizaciones sociales a la Seguridad Social.



1.7. TALDEKO ENTITATEAK, TALDE ANITZEKO ENTITATEAK ETA ENTITATE ELKARTUAK. PARTAIDETZA PORTZENTAJEA MERKATARITZA ENTITATEETAN

1.7.1. TALDEKO ENTITATEAK

2019. ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiak, bi

1.7. ENTIDADES DEL GRUPO, MULTIGRUPO Y ASOCIADAS, PORCENTAJE DE PARTICIPACIÓN EN LAS MISMAS

1.7.1. ENTIDADES DEL GRUPO

El Sector público foral del Territorio Histórico de

foru organismo autonomoek, hiru merkataritzako foru sozietateek eta sei foru fundazioek osatzen dute Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa.

Foru organismo autónomoak, merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak taldetzat hartuta daude urteko kontu hauek prestatzeari begira.

Foru organismo autonomoek, merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek nortasun juridiko publiko bereizia dute, baita ondare eta diruzaintza propioak eta kudeaketarako autonomia ere, hala jasotzen baitu martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak.

1.7.1.a) Foru organismo administratibo autonomoak

Foru organismo autonomoak Gipuzkoako lurralde historikoko entitate publikoak dira. Administrazio zuzenbidearen arabera jokatzen dute, eta haien xedea da zerbitzu publikoak sustatu, eman edo kudeatzeko jarduerak egitea deszentralizazio araubidean beti.

Beren funtzioak betetzeko, foru organismo autonomoek baimendu zaizkien diru-sarrera propioak izango dituzte, baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretatik jaso ditzaketen zuzkidurak ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bi foru organismo autonomo ditu:

- "Uliazpi Fundazioa" Foru Organismo Autonomoa.
  Hau da bere xedapen sortzailea: ekainaren 5eko 8/1989 Foru Araua, Gipuzkoako Adimen Gutxitu Sakonei laguntzeko «Uliazpi Fundazioa» Erakunde autonomoa sortzeari buruzkoa.

- "Kabia" Foru Organismo Autonomoa.
  Xedapen hau dugu haren arau sortzaile: azaroaren 6ko 12/2014 Foru Araua, zeinaren bidez sortzen baita «Kabia» izeneko foru organismo autonomoa, gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta gauzatzeko.
  Foru organismo autonomo honek bere aktibitateari ekin zion 2015eko ekitaldian.

Gipuzkoa se halla integrado en 2019 por la Diputación Foral de Gipuzkoa, por dos organismos autónomos forales, por tres sociedades mercantiles forales y por seis fundaciones forales.

Los organismos autónomos forales, las sociedades mercantiles forales y las fundaciones forales tienen la consideración de entidades del grupo a los efectos de la elaboración de estas cuentas anuales.

Los organismos autónomos forales, las sociedades mercantiles forales y las fundaciones forales tienen personalidad jurídica pública diferenciada, patrimonio y tesorería propios, así como autonomía de gestión, en los términos previstos en la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

1.7.1.a) Organismos autónomos administrativos forales

Los organismos autónomos forales son entidades del territorio histórico de Gipuzkoa, de naturaleza pública, que se rigen por el derecho administrativo y cuyo objetivo es la realización, en régimen de descentralización, de actividades de fomento, prestacionales o de gestión de servicios públicos.

Para el desarrollo de sus funciones, los organismos autónomos forales dispondrán de los ingresos propios que estén autorizados a obtener, así como de las dotaciones que puedan percibir a través de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La Diputación Foral de Gipuzkoa tiene dos organismos autónomos forales:

- Organismo Autónomo Foral "Fundación Uliazpi".
  Su creación se realizó mediante la Norma Foral 8/1989, de 5 de junio, por la que se crea el Organismo Autónomo «Fundación Uliazpi» para la atención a los deficientes mentales profundos de Gipuzkoa.

- Organismo Autónomo Foral "Kabia".
  Su creación se realizó mediante la Norma Foral 12/2014, de 6 de noviembre, por la que se crea el organismo autónomo foral «Kabia» para la gestión, prestación y ejecución de servicios sociales.
  Este organismo autónomo inició su actividad en 2015.

1.7.1.b) Merkataritzako foru sozietateak

Merkataritzako foru sozietateak dira foru sektore publikoaren kapitalean 100eko 50etik gorako partaidetza dutenak. Partaidetza finkatzeko, foru sektore publikoa osatzen dute gainerako entitateek kapital sozialean dituzten partaidetza zuzenak edo zeharkakoak hartuko dira kontuan.

Merkataritzako edo laneko zuzenbideak edo zuzenbide zibilak eta legeria espezifikoak eraenduko dituzte merkataritzako foru sozietateak.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearen martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren xedapenek gidatzen dute merkataritzako foru sozietateen aurrekontu, ekonomia-finantza, kontabilitate eta kontrolaren araubidea, baldin eta espreski aplikatu behar bazaie, baita zuzenbide pribatuak ere xedapen horien kontrakoak ez badira.

Merkataritzako foru sozietateak, zeinetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetza %100eko dena, hurrengoak dira:

- "Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia - SA" sozietate publikoa.

  Xedapen hau dugu haren arau sortzaile: uztailaren 16ko 43/2002 Foru Dekretua, «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA» merkataritza entitate anonimoaren eraketari buruzkoa".

- ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA S.A." sozietate publikoa (lehen "ITTEN, Herriekin Lan Egiten S.A.").

  1990eko apirilaren 29an "Urnieta Lantzen S.A." sozietaren eraketa formalizatu zen. Abuztuaren 31ko 74/1993 Foru Dekretuaren bitartez Foru Sozietate Publikoaren izaera eman zitzaion. Geroago, sozietatearen estatutuak aldatu ondoren, entitate horrek "Etorlur, Gipuzkoako Lurra S.A." izena hartu zuen.

  2013ko azaroaren 11n, entitateak bere kapitala murriztu zuen eta izendapen soziala berrriro aldatu zuen. Aurrerantzean, "ITTEN Herriekin Lan Egiten SA" izena hartu zuen.
  Azkenik, 2015eko azaroaren 3an bazkide bakarrak hartutako erabaki baten bidez

1.7.1.b) Sociedades mercantiles forales

Son sociedades mercantiles forales las sociedades mercantiles en cuyo capital la participación del sector público foral es superior al 50%. Para la determinación de dicha participación se tendrán en cuenta las participaciones, directas o indirectas, en el capital social del resto de entidades que integran el sector público foral.

Las sociedades mercantiles forales se regirán por su legislación específica y por el derecho mercantil, civil o laboral.

No obstante, el régimen presupuestario, económico-financiero, de contabilidad y de control de las sociedades mercantiles forales se regirá por las disposiciones de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa que le sean de expresa aplicación y, en lo que no las contradiga, por el derecho privado.

Las sociedades mercantiles forales, participadas al 100% por la Diputación Foral de Gipuzkoa, son las siguientes:

- Sociedad pública "Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia – Agencia Gipuzkoana de Infraestructuras S.A.".
  La normativa que regula su creación es el Decreto Foral 43/2002, de 16 de julio, sobre constitución de la entidad mercantil anónima «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia - Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, S.A.».

- Sociedad pública "ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA S.A." (anteriormente "ITTEN, Herriekin Lan Egiten S.A.").
  Con fecha 29 de abril de 1990 se formalizó la constitución de la sociedad "Urnieta Lantzen S.A.". Mediante Decreto Foral 74/1993, de 31 de agosto, se le otorgó a esta entidad el carácter de Sociedad Pública Foral. Posteriormente, tras la modificación de los estatutos sociales pasó a denominarse "Etorlur, Gipuzkoako Lurra S.A.".
  Con fecha 11 de noviembre de 2013, la entidad redujo su capital y procedió a realizar un nuevo cambio de denominación social, pasando a denominarse "ITTEN, Herriekin Lan Egiten S.A.".
  Finalmente, mediante decisión del Socio único adoptada con fecha 3 de noviembre

izendapen sozialaren aldaketa berri bat onartu zen, “Etorlur Gipuzkoako Lurra SA” berriro jarriz.
Aipatu erabakia 2016ko urtarrilaren 19an eskritura publiko batez baimendu zen eta 2016ko urtarrilaren 28an inskribatua izan zen.

- “Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea SA” (IZFE) sozietate publikoa.

  Xedapen hau dugu haren arau sortzaile: ekainaren 29ko 55/1993 Foru Dekretua, «Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea SA» merkataritza entitate anonimoaren eraketari buruzkoa.

de 2015, se acordó un nuevo cambio de denominación social que pasó a ser la de “Etorlur Gipuzkoako Lurra S.A.”.
Dicho acuerdo fue formalizado en escritura pública con fecha 19 de enero de 2016 e inscrito con fecha 28 de enero de 2016.

- Sociedad Pública “Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea – Sociedad Foral de Servicios Informáticos, S.A.” (IZFE).
  La normativa que regula su constitución es el Decreto Foral 55/1993, de 29 de junio, sobre constitución de la Entidad Mercantil Anónima “Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea - Sociedad Foral de Servicios Informáticos, S.A.”

1.7.1.c) Foru fundazioak

Foru sektore publikoko foru fundazio dira beren patronatuko kide gehienak foru sektore publikoko entitateek izendatuak dituztenak eta, horrez gainera, ezaugarri hauetako bat betetzen dutenak:

a) Eratzeko egindako ekarpen gehiena, zuzenekoa zein zeharkakoa, Gipuzkoako Foru Aldundiarena edo foru sektore publikoko gainerako entitateena izatea.

b) Beren sortze ondarea, 100eko 50etik gorako portzentaje batean, aipatutako entitateek eman edo lagatako ondasun edo eskubideez osatuta egotea modu iraunkorrean.

Foru fundazioek jarduteko gaitasun osoa dute, eta haien muga bakarrak fundazio egintzan fundatzaileek adierazitako borondateetan eta aplikagarri zaizkien lege xedapenetan ezarritakoak dira. Lege xedapen horien artean, bereziki dago ekainaren 2ko 9/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.

Aplikatzen zaien aurrekontu, kontabilitate eta kontrol araubidea martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearenak, foru merkataritza sozietateetarako ezartzen duena da.

Foru sektore publikoan sartzen diren foru fundazioak honako hauek dira:

- Kirolgi Fundazioa
- Sueskola Gipuzkoa Fundazioa

1.7.1.c) Fundaciones Forales

Se integran en el sector público foral las fundaciones forales en las que la mayoría de las personas que integran su patronato son designadas por entidades que forman parte del sector público foral y además, concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que se constituyan con una aportación mayoritaria, directa o indirecta, de la Diputación Foral de Gipuzkoa o demás entes del sector público foral.

b) Que su patrimonio fundacional, con un carácter de permanencia, esté formado en más de un 50 por 100 por bienes o derechos aportados o cedidos por los referidos entes.

Las fundaciones forales tienen plena capacidad de obrar sin otra limitación que la establecidas en la manifestación de voluntades de las personas fundadoras en el acto fundacional y por las disposiciones legales que les son de aplicación, en especial, la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

En particular, su régimen de presupuestación, contabilidad y control, es el establecido en la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del territorio histórico de Gipuzkoa para las sociedades mercantiles forales.

Las fundaciones forales que se integran en el sector público foral son las siguientes:

- Fundación Kirolgi
- Fundación Sueskola Gipuzkoa

- Adinberri Fundazioa
- Klima Aldaketaren Gipuzkoako Fundazioa
- Ziur Fundazioa
- Mubil Fundazioa

1.7.2. TALDE ANITZEKO ENTITATEAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak akzioak ditu hainbat sozietatetan. Sozietate horien, xede sozialaren eta partaidetza portzentajearen inguruko informazioa Memoria honetan 6.8. atalean (Aktibo Finantzarioak") zehazten da.

- Fundación Adinberri
- Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa
- Fundación Ziur
- Fundación Mubil

1.7.2. ENTIDADES MULTIGRUPO

La Diputación Foral de Gipuzkoa tiene participación accionarial en diversas sociedades. La información relativa a estas sociedades, objeto social y porcentaje de participación, se detalla en el apartado 6.8.- "Activos Financieros", de esta Memoria.

2. KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. IRUDI LEIALA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioari buruzko informazio sistemaren kontabilitate erregistroak erabili dira urteko kontuak osatzeko. Eurotan adierazita daude, eta aurkezteko garaian kontuan hartu da Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko 4/2007 Foru Arauak 122. artikuluan jasotakoa (Kontabilitate printzipio publikoak aplikatu behar dituzten entitateen urteko kontuen edukia) eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrak ezarritakoa. Urteko kontuen helburua ondarearen, egoera finantzarioaren, aurrekontu exekuzioaren eta ondare emaitza ekonomikoaren irudi leiala erakustea da.

2.2. INFORMAZIOAREN KONPARAKETA

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontabilitate Publikoko Foru Plan Orokorra 2012ko abenduaren 28ko 51/2012 Foru Dekretuaren bidez onartu zen.

2019ko ekitaldian, ez da aldatu kontabilizazio irizpiderik.

2.3. KONTABILITATE-ESTIMAZIOEN ALDAKETEI BURUZKO INFORMAZIOA

2019ko ekitaldian egindako kontabilitate estimazioetan ez da aldaketa esanguratsurik izan 2018an egindakoen aldean.

2.4. KONTABILITATE EGOERETAN IZANDAKO ALDAKETEI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontabilitateko egoera-orriak ez dira aldatu 2018an aurkeztutakoen aldean.

2. BASES DE PRESENTACIÓN DE LAS CUENTAS

2.1. IMAGEN FIEL

Las cuentas anuales se han confeccionado de acuerdo con los registros contables del sistema de información de gestión económica y financiera de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Se expresan en euros, y se presentan de acuerdo con lo establecido en el art. 122 “Contenido de las cuentas anuales de las entidades que deben aplicar los principios contables públicos” de la Norma Foral 4/2007 de Régimen Financiero y Presupuestario y en el Plan General de Contabilidad Pública del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Su objeto es mostrar la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera, de la ejecución del presupuesto y del resultado económico patrimonial.

2.2. COMPARACIÓN DE LA INFORMACIÓN

El Plan General de Contabilidad Pública Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa fue aprobado mediante el Decreto Foral 51/2012, de 28 de diciembre de 2012.

En el ejercicio 2019 no se han producido cambios de criterio en la contabilización.

2.3 INFORMACIÓN SOBRE CAMBIOS EN LAS ESTIMACIONES CONTABLES

No se han producido cambios significativos en las estimaciones contables realizadas en el ejercicio 2019 con respecto a las realizadas en 2018.

2.4. INFORMACIÓN SOBRE CAMBIOS EN LOS ESTADOS CONTABLES

No se han producido cambios en los estados contables con respecto a los presentados en el año 2018.

3. AINTZATESPEN ETA BALIOESPEN ARAUAK

3.1. IBILGETU MATERIALA

Ibilgetu materiala ekoizpen kostuaren edo eskurapen prezioaren arabera baloratuta dago.

Baldin eta ibilgetuaren osagai baten ordainketa geroratzen bada, eskurapen prezioa kalkulatzeko, eskurako prezioa kontuan hartu beharko da, kontratuko interes tasaren arabera eguneratuta. Kontratuko interes tasarik izan ezean, Foru Aldundiak bere zerga zorren gerorapen edo berandutza interesak likidatzeko erabiltzen duen interes tasa aplikatuta eguneratuko da prezioa.

Ibilgetu materiala konpondu eta artatzeko gastuak ekitaldiko ondare emaitza ekonomikoaren kontuari egozten zaizkio.

Ibilgetu materialaren elementuak aurrez definitutako kostu balioen gainean amortizatzen dira, kalkulatu zaien erabilgarritasun aldian metodo linealari jarraituta. Aurreko ekitaldietan erabilitako amortizazio koefizienteak erabili dira. Koefiziente horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak ezartzen duen esparrukoak dira.

Azpiegiturei dagokienez, aurreko ekitaldietan aplikatutako % 2ko amortizazio koefizientea mantendu da.

Ez da errebalorizaziorik izan ibilgetu materialeko aktiboetan.

3.2. HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK

Errentan emanda dauden ondasun higiezinak higiezinetako inbertsiotzat hartu dira.

3.3. IBILGETU UKIEZINA

Ibilgetu inmaterialak batik bat aplikazio informatikoetako inbertsioak biltzen ditu, hainbat urtez entitatearentzat onuragarritzat jotzen direnak. Ekoizpen kostuaren edo eskurapen prezioaren arabera adierazten dira. Aplikazio informatikoak linealki amortizatzen dira lau urteko epean.

Gainontzeko ibilgetu ukiezina linealki amortizatzen da bost urteko epean.

3. NORMAS DE RECONOCIMIENTO Y VALORACIÓN

3.1. INMOVILIZADO MATERIAL

El inmovilizado material se presenta valorado al coste de producción o precio de adquisición.

Si se difiere el pago de un elemento integrante del inmovilizado, su precio de adquisición será el precio equivalente al contado, actualizado al tipo de interés contractual. Si no existe tipo de interés contractual, la actualización se realizará a la tasa de interés en que la Diputación Foral liquida los intereses por aplazamiento o demora de sus deudas tributarias.

Los gastos derivados de la reparación y conservación del inmovilizado material se imputan a la cuenta del resultado económico patrimonial del ejercicio.

